



IRAKASKUNTZA-GIDA 2023/24

Ikastegia 160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl. Zehaztugabea

Plana GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa 1. maila

IRAKASGAIA

25949 - Gizarte Langintzarako Ekonomia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ekonomiari buruz Gizarte Langintzako ikasleek ezagutu behar dituzten oinarrizko edukiera eta konpetentziak ikasten dira ikasgai honetan. Gizarte langintza eta ekonomiaren arteko harreman esparruak aztertzen dira, bai eta ekonomia bera berezko ikuspegi batetik ikusita. Gainera, hainbat lanbidetarako prestakuntza orokor gisa- interesgarriak diren ezagutza esparruak ere aztertzen dira:

• Jarduera ekonomikoaren funtsezko oinarriak

• Enpresa, merkatu eta estatua jarduera ekonomikoaren oinarri gisa

• Sistema eta eredu ekonomikoak

• Ekonomiaren bilakaera eta egungo errealitate ekonomikoa (globalizazioa eta post-globalizazioa, garapen ekonomikoa)

• Lan merkatua, ongizate estatua.

• Garapen profesionalean interesgarriak izan daitezkeen ekonomia publikoa, soziala eta solidarioaren funtsezko aukerak

Errealitate ekonomikoaren oinarrizko alderdiak eta giza eta gizarte jardurekin eta gizarte langintzarekin bereziki-duten harremanak ulertzeko kontzeptuak eta oinarrizko konpetentziak garatzea da planteatzen diren ikasgaien helburua.

Gainera, testuinguru horietan ezarritako politikak aztertu eta baloratzeko gaitasuna ikasleek eskuratzea ere nahi dugu.

Beraz, ikasgai honen funtsezko helburua hauxe da: ekonomiaren errealitatea eta ekonomian eragiteko politika ekonomikoak interpretatzeko oinarrizko tresna analitikoak ikasleen esku uztea.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Garatu beharreko gaitasunak:

1. Ekonomiaren oinarriak ezagutzea, arlo teoriko zein praktikoetan aplikatu ahal izateko.
2. Gaur egungo ekonomien egitura eta beraien funtzionamendu, antolaketa eta garapena ezagutzea.
3. Lanbide-garapenerako eragin izan dezaketen ekonomia-egitura alternatibo nagusiak ezagutzea (ekonomia publikoa eta soziala).
4. Modu kritikoan hausnartzea gaur egungo fenomeno, gertakari eta arazo ekonomiko nagusien inguruan.
5. Pertsona, talde eta erakundeekin lan egiteko jarrerak garatzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

UNITATE DIDAKTIKOA A. EKONOMIAREN OINARRIAK

1. GAIA: OINARRIZKO KONTZEPTU EKONOMIKOAK

- 1.1. IKASGAIAREN EDUKIERAK
- 1.2. ZERTAN ERAGITEN DIGUN EKONOMIAK
- 1.3. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ZIENTZIA EKONOMIKOA
- 1.4. JARDUERA EKONOMIKOAREN ANTOLAKETA
- 1.5. JARDUERA EKONOMIKOAREN NEURKETA

2. GAIA: ENPRESA, MERKATU ETA ESTATUA

- 2.1. ENPRESA UNITATE PRODUKTIBO GISA
- 2.2. MERKATUA
- 2.3. ESKAINTZA, ESKARIA ETA PREZIOA
- 2.4. ESTATUAREN ZEREGINA EKONOMIAN

3. GAIA: SISTEMA ETA EREDU EKONOMIKOAK

- 3.1. SISTEMA EKONOMIKO PAREKATUAK
- 3.2. KAPITALISMOA ETA SOZIALISMOA
- 3.3. EREDU EKONOMIKO KAPITALISTAK
- 3.4. EREDU EKONOMIKO SOZIALISTAK

UNITATE DIDAKTIKOA B. JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA DENBORAN ZEHAR



4. GARAPEN EKONOMIKOA

- 4.1. GARAPEN EKONOMIKOAREN OINARRIAK
- 4.2. BIZTANLEKO BPG HELBURU GISA
- 4.3. GARAPEN IRAUNKORRA. JATORRIZKO BERTSIOA
- 4.4. GARAPEN JASANGARRIA. EGUNGO INTERPRETAZIO HEDATUA
- 4.5. MALTUSIANISMOA ETA NEOMALTUSIANISMOA
- 4.6. GAITASUN PRODUKTIBOA EKONOMIAREN HELBURU GISA
- 4.7. GIZA GARAPENAREN INDIZEA
- 4.8. GENEROA ETA GARAPENA

5. NEOLIBERALISMOA, GLOBALIZAZIOA ETA POSTGLOBALIZAZIOA

- 5.1. GERRA OSTEKO EREDU SOZIALA
- 5.2. GLOBALIZAZIOA
- 5.3. NEOLIBERALISMOA
- 5.4. EREDU NEOLIBERALAREN PORROTA
- 5.5. POST-GLOBALIZAZIOA
- 5.6. MUNDU MULTIPOLAR BATERANTZ
- 5.7. ETORKIZUNeko EREDUAK. BERRABIATZE HANDIA

UNITATE DIDAKTIKOA C. ENPRESA EREDU ALTERNATIBOAK

6. ENPRESA PUBLIKOA

- 6.0. KOKAPENA JARDUERA EKONOMIKOAN
- 6.1. ENPRESA PUBLIKOAK. KONTZEPTUA ETA HELBURUAK
- 6.2. ENPRESA PUBLIKOEN GORALDIA ETA GAINBEHERA
- 6.3. EZTABAIDA BERPIZTUA
- 6.4. ENPRESA PUBLIKO ETA PRIBATUA. ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK
- 6.5. SEKTOREAK ETA ENPRESAK
- 6.6. ENPRESA HANDIEN ZEREGINARI BURUZKO EZTABAIDA

7. EKONOMIA SOZIALA ETA SOLIDARIOA

- 7.0. KOKAPENA JARDUERA EKONOMIKOAN
- 7.1. EKONOMIA SOZIALA
- 7.2. EKONOMIA SOLIDARIOA

UNITATE DIDAKTIKOA D. LANA ETA GIZARTE KOHESIOA

8. LAN MERKATUA

- 8.1. LAN MERKATUA: ENPRESARIAK, LANGILEAK, SINDIKATUAK ETA ESTATUA
- 8.2. MALGUTASUNA ETA PREKARIETATEA
- 8.3. ENPLEGUA ETA LANGABEZIA
- 8.4. ENPLEGU POLITIKAK: PASIBOAK ETA AKTIBOAK
- 8.5. GENEROA ETA LAN MERKATUA
- 8.6. MIGRAZIOAK ETA LAN MERKATUA
- 8.7. LANBIDE ARTEKO GUTXIENeko SOLDATA

9. ONGIZATE ESTATUA

- 9.1. ZER DA ONGIZATE ESTATUA
- 9.2. ONGIZATE ESTATUAREN BILAKAERA ESPAINIAKO ESTATUAN
- 9.3. ONGIZATE ESTATUAREN EREDUAK
- 9.4. GASTU SOZIALAREN AZTERKETA PAREKATUA
- 9.5. GASTU SOZIALA EUSKADIKO A.E.N
- 9.6. 2008 ETA 2020KO KRISIEN ERAGINA

METODOLOGIA

Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia hiru jarduera motatan oinarritzen da:
- Klase presentzialak (edo presentzialak online) irakaslearekin



- Mintegi eta tutoretzeta joatea irakaslearekin, bakarka ala taldeka
- Ikasleek (beraien kontura) ikastea eta lanak egitea

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		22,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- IDATZIZKO (EDO AHOZKO/ONLINE) AZTERKETA % 80

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikastaro honetan ebaluazio sistema jarraia erabiltzea gomendatzen da. Hala ere nahi duten ikasleek ebaluazio bakarra egiteko aukera izango dute (azken froga %100ean). Honetarako markatutako epeetan (lauhilekoaren lehenengo 9 astean barruan) eskabide idatzia luzatu behar diote irakasleari.

EBALUAZIO JARRAIA

Ebaluazio jarraituak ikasketa prozesua ebaluatzea du helburu, klasean landutako edukien asimilazioa eta ulermena gradualki lortzeko. Klaseetara asistentzia erregularra beharrezkoa da eta partehartze pro-aktiboa oso garrantzitsua da. Jarduera inbidibual edo taldekakoak burutuko dira klase praktikoetan 2 puntuko balioaz. Jarduera hauek ariketa praktikoak, ordenagailu praktikak edo artikulua eta lanen aurkezpen idatzia edo/eta orala klasean izango dira. Aldi berean banakako froga final bat egongo da (test eta idatzizko garapena konbinatzen duena) --edo ahozko azterketa online- 8 puntuko balioaz. Azken azterketa hau gainditzea nahitaezkoa izango da ikasgaia gainditu ahal izateko. Deialdiari uko egiteko nahikoa izango da froga final honetara ez aurkeztea.

EBALUAZIO BAKARRA

Bukaeran azken froga batean datza: idatzizko lan batez eta azken azterketa batez osatua. Lana eGelan zehaztuko da eta irakaslearekin adostu behar izango da aurretiaz. Azterketak test eta idatzizko garapena konbinatuko ditu edo ahozkoa/online izango da. Deialdiari uko egiteko nahikoa izango da froga final honetara ez aurkeztea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Berdin du zein ebaluazio sistema hautatu izan (jarraia ala bakarra), ikasleek eskubidea du azken idatzizko froga -edo ahozkoa/online- batetara notaren %100aren balioarekin. Aurretiaz ebaluaketa jarraia hautatu izan duen ikasleek, bere onerako hala nahiko balu, eskatu dezake burututako praktiken nota gordetzea (2 puntu) eta beraz azken froga honetara aurkeztu gainontzeko 8 puntuak lortzeko. Hori bai, beharrezkoa da azken froga hau gainditzea.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

eGelan eskuragarri jarritako materialak. Gutxienez:

- * Gaiak azaltzeko erabiltzen diren power point gisako aurkezpenak
- * Ariketa praktikoak egiteko erabili beharko diren formatuak.



BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

(Gai bakoitzari dagokionatik aparte)

Dobb, M. (2015): Introducción a la Economía. Fondo de Cultura Económica

Muñoz, C.; IRAIZOZ, B. eta RAPUN, M.(2020): Introducción a la Economía Aplicada. Magnitudes y cuentas económicas. ARANZADI

Pérez, A. et al. (2014): Introducción a la Economía. PEARSON

Pérez, A. eta CASTEJON, R. (2015): Introducción a la Economía. Ejercicios y prácticas. PEARSON

Torres López, J. (2017): Introducción a la Economía. PIRAMIDE

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK